

Banka

Aurkibidea

Udalerria: Banka

Sarrera



Banka Nafarroa Behereko hego-mendebaldeko udalerria da, Baigorri eskualdekoa. Baigorriarekin egiten du muga iparraldean, Anhaize eta Lasarekin ipar-ekialdean eta Aldude eta Urepelarekin hego-mendebaldean; Nafarroa Garaiarekin ere mugakide da: Baztanekin mendebaldean, Luzaidarekin ekialdean eta Erroibarrekin hegoaldean.

- **Biztanleak:** 333
- **Euskaldunak:** %63,47

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **45**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **45**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak
- Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleak

Hizlariak

Pierre Etcheberri (1966)



Guraso biak Bankan sortuak, bost senidetan zaharrena eta mutil bakarra da Pierre. Haragitarako behi gorriak zituzten. Baigorriin egin zituen oinarritzko ikasketak eta ondotik Laborantza ikasketak Donibane Garazin, bi urtez. Hainbat lanbidetan ibilia da, familiako etxaldean zein kanpoan. Azken urteetan Baigorriko Etxauzia gazteluko zaintzailea izan da; hotela zen garaian, bisita gidatuak ere egiten zituen bertan. Gazteluaren historia kontatu du elkarrizketan, eta baita Bankako zein Baigorriko beste hainbat kontu.

Pantxo Juanikotena



Gurasoak baztandarrak izan arren (aita Elizondokoa eta ama Erratzukoa), Bankan sortu zen Pantxo, 36ko gerra garaian aita hara joan zelako ihesean. Bankan bizi izan da beti. Artzaina. Abestea asko gustatu izan zaio umetatik.

Marie-Jeanne Minaberri (1926-2017)

Marie-Jeanne 1926an sortu zen Bankako Atalkienea etxean. Lau neskatan hirugarrena izan zen bera. Aita Iholdikoa zuen eta ama Urepelekoa. Aitak Hairako bidean zen "uzina" hidroeletrikoan lan egiten zuen eta amak, berriz, etxean. Bankan, Donapaleun eta Angelun egin zituen ikasketak, baina utzi beharra izan zuen ama eritu zitzaionean. Bankako Herriko etxeko idazkari izan zen orduan, eta gero irakasle hiru urtez Baionan 1954tik 1957ra. Ondotik, idazkari eta berrikerari izan zen Basque-Eclair eta Sud-Ouest egunkarietan 33 urtez. Marie-Jeanne Euskaltzaindiako ohorezko kidea izan zen eta biziki ezaguna, bereziki haurrei zuzendu bere idazlan oparoengatik. Ikas pedagogia zentroaren sortzean parte hartu zuen eta hiztegiak, gramatikak eta euskararen ikasteko metodoak argitaratu zituen.



Mayi Oçafrain (1948)

Bankan sortua. 1970ean, ezkondu ondoan, Kaliforniara joan zen, San Frantzisko aldera. Hiru haurren ama. Haurzain, sehi eta xaharren artatzaile bezala aritu da lanean. 34 urte iragan ondoan, Euskal Herrira itzuli eta Garazin jarri zen bizitzen.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Bankako karrika 1930 hamarkadan (BAN-002/001)

Hamar bat haur baziren Bankako plazan edo karrikan, Marie-Jeanne Minaberri haurra zenean (1930 hamarkadan) : Atalkienez (bere sortetxean) lau alaba ziren eta Batitaenez (parreko ostatuan) beste lau mutiko.

2. Dantza eta eliza Bankan 1930-40 hamarkadetan (BAN-002/002)

Ardans apezak ez zuen begi onez ikusten neska gazteak dantzari har zitezten. 1939-1945ko gerlaren ondotik, Bankan izan zen dantzaldi batean parte hartu neska bati ez zion absoluonea eman. Ondorioz, neska familiak elizari zuten kadera hartu zuen eta gehiago ez zangorik eman elizari.

3. Bankako eskolak 1930 hamarkadan (BAN-002/003)

Lau eskola baziren Bankan : bat Haira auzoan, beste 3 gela karrikan berean, mail desberdinetako haurrekin. Gela handiengan 40 bat haur ziren, mutikoneskak nahas-mahas.

4. Euskara eta eskola Bankan 1930 hamarkadan (BAN-002/004)

Marie-Jeanne Minaberry-k ez du garai hortan ezagutu euskarari lotu debeku edo zigorrik.

5. Kartierren eta karrikaren arteko harremanak (BAN-002/005)

Laupabost auzo baziren Bankan, denak mendian. Mendiko etxe bakotzak bazuen karrikan bere pausagunea : etxe hortan bazkaltzen zuten hurrek eskola denboran, igandetan edo merkatu egunetan hor zituzten aldatzen zapetak.

6. Bankako ostatuak (BAN-002/006)

Bi ostatu baziren Bankan luzaz : Batitaenea eta Tunioenea. Tunioneko etxeko andereak tripa salda egiten zuen neguan, igandetan.

7. Etxeko jaunak eta etxerik gabekoak Bankan (BAN-002/007)

Elizan etxe bakoitzak bazuen bere lekua. Gardien eta olhako langilen haurrak ez ziren ongi ikusiak etxerik ez zutelako. Olha hetsi zenean, Bankarrak etxeko etxeko (beren artean)gelditu ziren.

8. Laborantxa Bankan (BAN-002/008)

Laborantxa bizibide nagusia zen luzaz Bankan eta laborari etxe gehienak mendian ziren (ardi hazkuntza).

9. Banka Haira oihaneko egurra (BAN-002/009)

Hairako oihaneko egurra moztua zen eta bagoi ttipi batzuetan karrikako zerrategira karreatua. Hor zurak egiten ziren eta idortzera uzten saldu aitzin.

10. Haira oihaneko ikazkinak (BAN-002/010)

1939-1945 gerla denboran bereziki egur ikatza egiten zen. Ikazkinak karrikan bizi ziren eta oihanera igotzen ziren aste guziko. Beren janaria baba eta artekiz egin zen. Ikatza Baigorri Bidart izeneko komertsantari saltzen zioten.

11. Bankako erreka uretik : argindarra (BAN-002/011)

Bankako argindar lantegia 1914 aitzin sortua zen. Marie-Jeannen aita hor ari zen lanean. Laupabost langile ziren, 3/8 moduan ari zirenak gau eta egun.

12. Erreka uretik : arrainak (BAN-002/012)

Bankan gizon bakar bat bizi zen arraintzaz. Arraintzale profesional honek furnitzen zituen Baigorriko ostatu guziak. Arraintzale kopurua handitu denetik (bereziki kanpotiarrak), arraina ttipitu da. Arraintegiak geroztik egin dira.

13. Kontrabanda Bankan (BAN-002/013)

Etxeko behar zen kontrabanda egiten zen. Kontrabandari esker, batzuk ez dute gerla denboran miseriarik ezagutu. Marie-Jeanne Minaberry-ren familian kasu hortan ziren : aste barnean menditarren tiketak atxikitzen eta trukatzeko zituzten eta, xerbitxu horren ordainez, kafe, gasna, arno eta frango gauza ukaiten. Marie-Jeannen aita ere saiatu zen kontrabandan aldi bakar batez bainan esperientzia ez zen emankorra izan.

14. Emigrazioa Bankan (BAN-002/014)

Ainitz gazte joaiten zen Ameriketara, banabeste bizpauru etxe bakoitx. Ameriketatik igorri diruari esker xutik egon dira etxe frango.

15. Aitatxi-amatxi urepeldarrak (BAN-002/015)

Marie-Jeanne Minaberry-ren aitatxi (amaren aita) jornalean ari zen laborari etxeetan eta goizik hil zen tuberkulosiarekin. Amatxi irulea zen. Beste gauza batzu ere oso ongi egiten zituen amatxik, adibidez bolada (bestaburuetakoko ur berezi goxo bat) edo garbanzoak ere (Urepeleko bestakari).

16. Bankako apezka (BAN-002/016)

Marie-Jeanne Minaberry-k oroitzapen berezia du Ardans apezaz : apez saildua bainan ideia laburrekin.

17. Eskalapoin egilea (BAN-002/017)

Battitta eskalapoin egilea tresna bereziekin ari zen eta bere eskalapoinak zaku handietan igortzen zituen.

18. Beste pertsonaia berezi batzu (BAN-002/018)

Mixel Bernatene arraintzalea zen eta bere arrainak Baigorriko ostatuari saltzen zituen. Bere arreba aldiz ile moxten aritzen zen. Tapona peontzan ibiltzen zen eta igandetan mozkortzen. Antton Xiri, izengoitiak dion bezala, mehaila luze bat zen.

19. Aña Mamu eta bere senarra (BAN-002/019)

Aña Mamuk xixare xeheak hazten zituen, zerrazahian ezartzen eta saltzen. Senarra arraintzalea zuen.

20. Xuritzzaileak (BAN-002/020)

Bi emazte baziren etxez etxe zabiltzanak oihal garbitzen (arropa eta mihise) : horietarik bat Mikela deitzen zen, bietarik batek senarra ikazkina zuen.

21. Andere serora (BAN-002/021)

Andere serora elizaren garbitzeaz, ezkilien joiteaz eta ostien egiteaz okupatzen zen. Beste emazte bat bazen, Mari, ezkilak muntatzen zituenak astean behin.

22. Ainez Kittarra (BAN-002/022)

Ainez Kittarra ardura miserian bizi zen, maingua zen, Jeanne d'Arc ikusia zuela zion.

23. Dendariak (BAN-002/023)

Bi dendari baziren Bankan : bat Aña Kaxa, bizpairu aprendiz bazituena.

24. Mari Kabila (BAN-002/024)

Mari Kabilaren berezitasuna zen Baionako merkatura zoala autobusez, ortzegun guzietz, Bankarren erosketen egitera. Xerbitxuaren ordainez, zerbaixka eskatzen zuen.

25. Eroak (BAN-002/025)

Bi eroetaz oroitzen da Marie-Jeanne Minaberry : bat ikusten zena, Belexiko emazte eroa, mantalina luze batez jantzirik etortzen zena igandetako mezara eta beti irriz ari zena. Beste eroa ez du sekulan ikusi, etxean atxikitzen zutelako.

26. Karrika haurren jokoak 1930. hamarkadan (BAN-002/026)

Bankako karrikako mutiko-neskak elgarrekin jostatzen ziren, besteak beste kañiketan, pilotan, kartetan, lasterkan, paper zaku hantzen eta lehertarazten. Bankako erretorak ez zuen begi onez ikusten neskak pilotan aritzea.

27. Haur joko berezi bat 1930. hamarkadan (BAN-002/027)

Bankako haurren jokoen artean, bat berezia bazen : lapatinen botatzea.

28. Karrika eta Elizaren arteko harremanak (BAN-002/028)

Karrikako jendeak estatus berezia zaukan eta bereziki askatasun gehiago ohidura batzueri begira. Ondorioz, apezak ere molde berezi batez kontsideratzen zituen.

29. Elizan sartzea (BAN-002/029)

Marie-Jeannek berak ez du ezagutu, amaren bidez baizik : emazte bat ama bilakatzen zelarik, ez zen berriz nolana hika sartzen elizara, apeza heldu zaion bila eliza zolara garbitze errito bat egiteko.

30. 1939-1945 gerlaren oroitzapenak (BAN-002/030)

Marie-Jeannek alemanak doi doa ikusi ditu. Haatik, oroitzen da gerla ondoan bi emazteeri ileak moztu zizkietela alemanekin ibili baitziren.

31. Lehen berrikuntzak Bankan 1950. hamarkadan (BAN-002/031)

Marie-Jeanne oroit da, bera han zeno (1954 arte), bi auto baizik ez zirela herrian, bat auzapezarena, bestea bide egileen buruzagiarena. Bestalde, belarra mozteko tresna bat edo beste erosiak izan ziren, baina guti.

32. Sorterritik urruntzea (BAN-002/032)

Neska frango bezala, Marie-Jeanne Minaberry lehen aldikotz herritik urrundu da eskolatzeko. Gero, Bankako Herriko etxeko idazkari egonik, definitiboki joan da Uztaritzera 1954ean. Erakasle egon da hiru urtez Baionan, gero idazkari "Basque Eclair" eta "Sud-Ouest" en 33 urtez (1957-1990). Euskaraz idatzi du egunkari horietan, Sallaberry kalonjearentzat ere arizan da.

33. Idazlearen lehen urratsak (BAN-002/033)

Marie-Jeannek lehen olerkia idatzi zuen Bankan zelarik heriotze baten kariatara. Bere ahizpak eta Aña Xarritonek antzerki lan batekin ukan sari baten ondorioz hasi zen Marie-Jeanne funtski idazten. Jakiteko ea ongi idazten zuen, argitasunak galdegin zizkion Pariseko Euskal Etxeko buruzagi zen Leizaolari. Euskal kulturaz deus ez zakiela dio. Itzulpenak egiten zituen eta parte hartu zuen Euskalzaleen Biltzarrak antolatu lehiaketa batean. Jean Etxeparek irabazi zuen saria.

34. Argitalpenak (BAN-002/034)

Marie-Jeannen olerkiak argitaratuak izan dira, ez da xuxen oroitzen nun eta noiz. Parte hartu du Ikas batasunean ("Xoria kantari" Ikas, 1965), elebidun sailak sortu zirelarik eskoletan lan tresnak sortu ditu erakasleentzat. Lan asko egin du Haize Garbia argitaletxearendako : bi hiztegi, gramatika bat, diskoak, euskara ikasteko liburu eta kazetak.

35. Sorkuntzak eta itzulpenak (BAN-002/035)

Bai sorkuntza lanetan, bai itzulpenetan arizan da Marie-Jeanne. Ematen digu Piarres Lafitte kalonjearen ikusmoldea itzulpen lanari buruz.

36. Ikas zentro pedagogikoarekilako partaidetza (BAN-002/036)

Marie-Jeannek banaka banaka aurkezten ditu bere lanak, besteak beste Mari Gorri, Xoria Kantari (liburu eta diska), entzun, ikus,ikas (sekulan agertu ez den eskolako lantresna), euskara irratiz... Hegoaldeko lan batzu iparraldeko euskalkietan eman ditu (adibidez Manuel Lekuonarenak).Garrantzia gehiago ematen zuen liburuaren edukinari estetikari baino.

37. Gaien inspirazioa (BAN-002/037)

"Femme d'aujourd'hui" aldizkariak haur ipuin bat argitaratzen zuen astero. Marie-Jeannek ipuin horien euskaratzeko eskubidea lortu zuen. Ainitz itzulpen egin dituela dio, "lapurtzea" baizik ez duela egin. Testu batzu argitaratu gabe dira egon dira, bere "baratze segetua" osatzen dutela.

38. Euskalkien garrantzia (BAN-002/038)

Nafartar-lapurtarrez idatzi du Marie-Jeannek. Batua sortu zenean, ez du onartu baxenafartarra baztertua izan zedin. Beretzat, euskalkiak jendeekilako hurbiltasuna ekartzen du.

39. Ameriketara 1970ean (BAN-003/001)

Ameriketara 1970ean.

40. Ameriketako Estatu Batuetan euskaraz (BAN-003/002)

Ameriketako Estatu Batuetan euskaraz.

41. Lan desberdinak eta ondotik ikasketak ingelesez adineko jendez arduratzeko (BAN-003/003)

Lan desberdinak eta ondotik ikasketak ingelesez adineko jendez arduratzeko.

42. Euskal Herriarekiko harremanak (BAN-003/004)

Euskal Herriarekiko harremanak.

43. Euskal Herrira itzultzea haur ttipiengana hurbiltzeko (BAN-003/005)

Euskal Herrira itzultzea haur ttipiengana hurbiltzeko.

44. Lehenik Euskalduna eta gero Amerikanoa (BAN-003/006)

Lehenik Euskalduna eta gero Amerikanoa.

45. Estatu Batuetan egin lagunak bigarren familia gisa hartzen (BAN-003/007)

Estatu Batuetan egin lagunak bigarren familia gisa hartzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com